



IRAGARKIA

Elorrioko Udalak 2026ko IRAKASKUNTZARAKO ERAIKINEN INGURATZAILE TERMIKOA HOBETZEA PROIEKTATZEN DUTEN ITUNPEKO IKASTETXEENTZAT dirulaguntza deialdia onartzea (2026- 00471 espedientea)

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Elorrioko IRAKASKUNTZARAKO ERAIKINEN INGURATZAILE TERMIKOA HOBETZEA PROIEKTATZEN DUTEN ITUNPEKO IKASTETXEENTZAT udalaren dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrio, 2026ko martxoaren 10a

Julene Lazkano Zenitagoia

Alkatea



ELORRIOKO UDALAK 2026KO ITUNPEKO ESKOLEI DIRULAGUNTZAK, INGURATZAILE TERMIKOA HOBETZEKO EMATEN DUEN DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

(Kopiatu oinarriak)

Elorrioko Udalak 2008ko abenduaren 18an egindako osoko bilkuran onartu zituen dirulaguntzen oinarri arautzaileak, 2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak. Zuzenketa batzuk onartu ondoren, osorik argitaratu ziren 2010eko maiatzaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 86. zenbakian.

1. XEDEA ETA ZUZKIDURA

Deialdiaren xedea: irakaskuntzarako eraikinen inguratzaille termikoa hobetzeko proiektuetarako dirulaguntzen prozedura arautzea, Elorrioko Udalak diruz lagunduko duena 2026an.

Dirulaguntzaren xedea:

2024an Elorrioko irakaskuntzarako eraikinen inguratzaille termikoa hobetzeko proiektuak diruz laguntzea. Horretarako, 22.000,00 euroko zuzkidura dago 2026.3200.781.04 partidari (itunpeko ikastetxeetan egindako inbertsioak).

Irakaskuntzarako eraikinaren inguratzaille termikoa hobetzearekin zuzenean lotutako obrak diruz lagundu ahal izango dira. Honako baldintza hauek beteko dira:

- Aurkeztutako proiektuan, egungo egoera eta proposatutako hobekuntza-egoera adierazi beharko dira, eta planoan edo krokisean zehaztu beharko da proposatutako jarduketak (k).
- Hobekuntza-proposamenak irtenbide bat edo batzuk proiektatu beharko ditu, konfigurazio arkitektonikoaren erresistentzia termikoa handitzeko.
- Hobekuntza termikoko jarduketak edo obrak irakaskuntzarako eraikinaren inguratzaille termikoaren parte diren konfigurazio arkitektonikoetan bakarrik egin ahal izango dira.

2. ONURADUNAK

Elorrioko ikastetxe itunduek eskabidea aurkeztu ahal izango dute eta onuradun izan, baldin eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan jasotako egoera eragozlerik ez badute.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duenak, 2.4 artikuluan xedatzen du laguntzen edo dirulaguntzen onuradun diren erakunde pribatuek 3. artikulua (printzipio orokorrak), 17. artikulua (estatistikak eta azterlanak) eta 19.4 artikulua (hizkera inklusiboa eta ez-sexista) bete behar dituztela, udalaren eta onuradunaren arteko harremanari dagokion denboran eta gaian.

- Dirulaguntzetatik: Elorrioko itunpeko edozein ikastetxe pribatu diruz lagundu ahal izango da (Jaurlearitzak finantzaturako baina irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek kudeatutako ikastetxea).

3. ONURADUN IZATEKO DEBEKUA



Ezin izango dute eskabiderik aurkeztu, ezta onuradun izan ere, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean (bereziki 13. eta 14. artikuluetan) eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantza orokorrean jasotako egoera eragozleren batean dauden itunpeko ikastetxe pribatuek.

Ezin izango dira onuradun izan administrazio-, lan- edo zigor-bidean berdintasunerako eskubidea urratzeagatik eta sexuagatiko bereizkeria egiteagatik zehapen irmoa jaso duten pertsonak edo erakundeak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonak edo erakundeak.

Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta egotea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, sexuagatiko diskriminazioa barne.

Onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik diskriminatzen duten elkarte eta erakundeak.

4. EPEAK

- Eskabideak aurkezteko epea: urriaren 16ra arte.

- Eskabideak ebazteko: Udalak gehienez sei hilabete izango ditu eskabideak bideratu eta ebazteko.

5. LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

Emakida-prozedura honako hau izango da.....:

2026an Elorrioko irakaskuntzarako eraikinen ingurutzailerik termikoa hobetzeko proiektuetarako dirulaguntzen deialdian, diruz lagundu beharreko zenbatekoa gastuaren % 100era iritsi ahal izango da, betiere proiektua Udalarekin adostuta badago; itundutako ikastetxe pribatu bakoitzeko 7.333,00 euroko muga izango du.

Ez dira diruz lagunduko hobekuntza termikorik ez duten beira termikoko elementuak (leihoak edo bestelakoak) konpontzearen ondoriozko gastuak.

Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera hartuta, ez da inola ere diruz lagundutako proiektuaren kostua baino handiagoa izango.

Hezkuntza Batzordeak eskaerak aztertu ondoren, Elorrioko Udaleko Hirigintza, Ingurumen eta Landa Garapen Sailak, Hirigintzako teknikariak egiten duen txostena baloratu ondoren, dagokion irizpena emango du, Elorrioko Udaleko organo eskudunak dagozkion dirulaguntzak ematea ebatz dezan, eta eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, dirulaguntza horiek emateko jarraitu diren ebaluazio-irizpideak zehaztuta.

Honako gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:



- Itxitura bertikal erdi-irristakorren hobekuntza termikoa (beirak ordezte).
- Itxitura bertikal opakuen hobekuntza termikoa (arotzeriak ordezkatzeta).
- Itxitura bertikal opakuen hobekuntza termikoa (Sate sistema gauzatzeko proiektuak).
- Itxitura bertikal opakuen hobekuntza termikoa (fatxada aireztatua gauzatzeko proiektuak).
- Itxitura horizontalen hobekuntza termikoa (estalkia birgaitzea).
- Itxitura horizontalen hobekuntza termikoa (zolak birgaitzea).

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Fatxadako konponketak, inguratzaila termikoki hobetuko ez dutenak.
- Estalkia termikoki hobetzen ez duten estalkiak konpontzea.
- Arotzerietako, leihoetako eta abarretako konponketak, inguratzaila termikoki hobetzen ez dutenak.
- Estalkiak eta zolatak iragazgaiztea, inguratzaila termikoa hobetzen ez badute.

Udalak ziurtatuko du ikastetxe itunduek betetzen dituztela aurkeztutako inguratzaila termikoa hobetzeko proiektuetan eska daitezkeen irizpideak.

Eskabideak ebaluatzeko irizpideak:

Proiektu bakoitzari emango zaion dirulaguntza aurrekontuaren arabera aurkeztutakoa izango da, eta ezingo da 7.333,00 eurotik gorakoa izan. Ikastetxe itundu bakoitzeko proiektu bakarra onartuko da.

Aurkeztutako proiektuak diruz laguntzera bideratutako zenbatekoak (22.000 euro) inguratzaila termikoa hobetzeko hiru proiektu bakarrik bildu ahal izango ditu, ikastetxe itundu bakoitzeko bat.

6. ESKABIDEAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eskaerak Elorriko Udalaren plataforma elektronikoren bidez aurkeztuko dira: www.elorrio.eus.

Hauek izango dira:

- a. Eskabide-orria behar bezala beteta (l. eranskina: Itunpeko Ikastetxe Pribatuei zuzendutako udal Dirulaguntza).
- b. Eskabidea sinatu duen pertsonaren NANaren fotokopia, eta, hala badagokio, erakundearen ordezkaria dela legez egiaztatzen duen dokumentuarena. Ez da beharrezkoa izango dokumentu horiek aurkeztea, baldin eta Elorriko Udalak aldeztu aurretik egindako deialdietan aurkeztu badira, eta, betiere, dokumentu horiek edo haietan jasotako datuek aldaketarik izan ez badute. Atal honetan aurreikusitako kasuan, agiri/datu horiek dagoeneko udalaren esku daudela jakinarazi beharko da, aldaketarik izan ez izanaren zinpeko aitopenenarekin batera.



c. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena edo egiaztatpena, bai eta beste erakunde edo organismo batzuei xede bera finantzatzeko eskatu nahi dizkieten edo egin dituzten dirulaguntza-eskaerei buruzkoa ere, kontzeptu horrengatik jasotako edo eskatutako entitatea eta zenbatekoa adierazita. (II. eranskina).

d. Hirugarrenen alta-fitxa behar bezala beteta (III. eranskina). Agiri hau paperean edo online egin daiteke. Agiri hauek ez dira aurkeztu behar izango aurreko urteetan Elorrioko Udalak egindako deialdietan aurkeztu badira, beti ere, agiri horiek edo hauek jasotzen dituzten datuak aldatu ez badira.

<https://www.elorrio.eus/eu-ES/lzapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=295cb091-c85c-4be0-b4f4-c485119cdb35>

Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta baimena ematen dio Elorrioko Udalari beharrezko egiaztapenak egiteko.

7. INSTRUKZIOA, EBAZPENA ETA BIRFORMULAZIOA

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, aurkeztutako dokumentazioa egiaztatuko da, eta eskatzaileei eskatuko zaie hamar eguneko epean konpon ditzatela antzemandako gabeziak, eta adieraziko zaie, hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela.

Epe horren ondoren, hirigintza arloko udal teknikariak izango dira instrukzioaren arduraduna eta eskaerak ebaluatuko ditu, informazio-batzordeak ebazpen-organoari (Alkatetzari edo, hala badagokio, Tokiko Gobernu Batzarrari) bere irizpena proposa diezaion.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 24.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie, eta 10 eguneko epea emango da alegazioak aurkezteko.

Informazio-batzordeak onartu edo ukatu egingo ditu birformulazioak, eta, behar izanez gero, beste irizpen bat emango du.

Uko egin edo berriz formulatu ezean, emandako dirulaguntza onartu dela ulertuko da.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio udal honetako alkateari, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilboko Administrazioarekiko Auzietako dagokion Epaitegian. Hori guztia urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Fase honetan, Elorrioko Udalak, instrukzio-organoaren bitartez, aurkeztutako proiektuak baloratu beharko ditu, onuraduna zehazteko emakumeen eta gizonen berdintasunaren irizpidea kontuan hartuta.

8. BATERAGARRITASUNAK

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo



pribatutatik, nazionaletatik edo Europar Batasunetatik edo nazioarteko erakundeetatik datozenekin, salbu eta dirulaguntzaren ezaugarrietatik kontrakoa ondorioztatzen bada, eta betiere diruz lagundutako egitatearen kostuaren mugarekin.

9. PUBLIZITATEA

Erakunde onuradunek Elorriko Udaletik jasotako dirulaguntzaren berri eman beharko dute, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren arabera.

Ondorio horietarako, modu hauetan iragarriko dituzte diruz lagundutako jarduerak:

- karteletan eta liburuxketan: Udalaren armari ofiziala agertuko da, jarduera babesten duela adieraziz. Jarduera antolatzen duen erakundea ere agertuko da.
- elkarrizketetan, aurkezpenetan edo jardueraren ahozko edo idatzizko beste edozein hedapenetan, berariaz aipatu beharko da jarduera horrek Elorriko Udalaren dirulaguntza duela.
- Udalaren beraren kanaletan (Agenda Bateratua, web orria, etab.), jarduera hasi baino 15 egun lehenago gutxienez.

Dirulaguntza horien ondorioetarako, publizitatea proiektuaren aurrekontuaren % 10 izan daiteke. Beraz, publizitaterik egiten ez bada, ez-betetze horri dagokion zenbatekoa itzultzeko eskatuko da.

10. ORDAINKETAK

Ebazpena eta birformulazioak egiteko entzunaldi-epea amaitu ondoren, Udalak emandako zenbatekoaren % 65 ordainduko die onuradunei. Gainerako % 35a likidazio zuzena egin ondoren ordainduko da.

11. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduerak egitea edo dirulaguntzak emateko oinarri den jokabidea hartzea.
- Betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea, bai eta proiektua gauzatu dela eta dirulaguntza emateko edo baliatzeko helburua bete dela ere.
- Kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako jarduketak onartzea, eta aurreko jarduketetan eskatzen zaion informazio guztia ematea.
- Diruz lagundutako proiektuak finantzatzeko bestelako dirulaguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik lortu den jakinaraztea. Jakinarazpena jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolana ere, justifikatu aurretik. jasotako funtsei emandako jarduketarena.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik.
- Kontabilitateko liburuak, izapidetutako erregistroak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikagarri zaion merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatzen duen moduan, bai eta dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztatzeke eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko.



- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeenean.
- Dirulaguntzen deialdian ezartzen diren zabalkunde-neurriak hartzea, dirulaguntzaren emakida oinarritzen duen proiektua Elorrioko Udalaren lankidetzarekin eta/edo finantzaketarekin gauzatzen dela jakinarazteko.
- Oinarrien 42. artikuluan jasotako kasuetan jasotako funtsak itzultzea. Erregulatzailak.

BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK

Onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Diruz lagundutako proiektu orotan komunikazio inklusiboa erabiltzea, hau da, ez da erabiliko pertsonak sexuagatik, generoagatik, jatorriagatik edo bestelakoengatik umiliatzen, degradatzen edo estereotipatzen dituen irudirik edo idatzizko adierazpenik. Pertsonen berdintasuna eta aniztasuna irudikatuko duten irudiak eta hizkuntza sustatuko dira.
- Memoretan, hala badagokio, onuradunen gutxi gorabeherako kopurua generoaren arabera bereiztea, baita haien profila ere: gazteak, adinekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak.
- Erabiliko diren material guztietan ez da estereotipo sexistarik edo emakumeak diskriminatzen dituen adierazpenik agertuko.
- Erakunde onuradunek neurriak izatea sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jokabide transhomofobikoa prebenitzeko eta artatzeko.
- Hala badagokio, diruz lagundutako proiektu orok genero-ikuspegia txertatzea fase guztietan.

HIZKUNTZEN ARLOKO BETEBEHARRAK

Deialdi honen oinarriak Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta lege hori garatzen duten hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidean ezarritakora eta, era berean, Elorrioko Udalak onartutako Euskara Ordenantzara lotuta daude. Hala, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuak izan daitezen, kirol-klubek edo -elkartek bi hizkuntzen koofizialtasuna izan beharko dute beren eginkizunak betetzeko. Udalak onartutako Hizkuntza Irizpideen 10. puntuan jasotzen dira hizkuntzak erabiltzeko jarraibideak. Hauek dira aplikatu beharreko hizkuntza-irizpideak:

- Idatzizko komunikazioa: herritarrei zuzendutako idatzizko komunikazioak, hau da, abisuak, oharak, kartelak, iragarkiak eta bestelako argitalpenak gutxienez euskaraz idatzita egongo dira; euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratu behar izanez gero, euskarazko testua letra-tamainagatik eta erabilitako euskarrian duen kokapenagatik nabarmenduko da.
- Ahozko komunikazioa: ahal dela, euskara izango da administrazioarekiko eta herritarrekiko harremanetan erabiliko den hizkuntza. Herritarrei zuzendutako ekitaldi publikoak euskaraz egingo dira; bi hizkuntzak erabili behar badira, lehenik euskara erabiliko da eta, ondoren, gaztelania. 18 urtetik beherakoei zuzendutako ekitaldiak edo



jarduerak euskaraz bakarrik egitea gomendatzen da.

- Komunikabideak eta sare sozialak: mezuak eta iragarkiak euskaraz edo bi hizkuntzetan egingo dira.

12. ARAU-HAUSTEAK, ZEHAPENAK ETA ITZULKETAK

Arau-hausteak egitea, zehapenak ezartzea eta dirua itzultzeko arrazoiak Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko dira.

13. LIKIDAZIOA

Erakunde onuradunek honako hauek aurkeztu beharko dituzte 2026ko abenduaren 11a baino lehen:

- a. Proiektu bakoitzaren memoria, proposatutako hobekuntza termikoa adierazita, egungo egoeraren eta proposamen-egoeraren konfigurazio arkitektonikoa konparatuta, etab. (l. eranskina)
- b. Igorritako argitalpen, kartel edo liburuxka bakoitzaren ale bat.
- c. Proiektuaren diru-sarreraren eta gastuen zerrenda zehatza.
- d. Fakturen jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua.
- e. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- f. Xede bererako jasotako beste dirulaguntza publiko eta/edo pribatu batzuen aitortpena edo jaso ez izanaren zinpeko aitortpena.

14. DATUEN BABESA

Elorrioko Udalak (aurrerantzean, "Udala") (IFZ: P-4803900-B; helbidea: Herriko plaza z/g (48230) Elorrio, Bizkaia), dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko helburuarekin, emandako datu pertsonalak tratatuko ditu. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorretik eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretutik eratorritako legezko betebeharrak bat betetzea da tratamendu horren oinarria.

Datu horiek behar-beharrezkoak diren zerbitzuak ematen dituzten hirugarrenei baino ez zaizkie jakinaraziko, eta ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra edo interes publikoa izan ezik.

Elorrioko Udalak datu pertsonalak gordeko ditu erantzukizunen bat eska dakioken legezko epean.

Dirulaguntzen deialdi honetan eskatutako datuak aurrez jakinarazitako helburua behar bezala lortzeko behar-beharrezkoak direnak dira; beraz, datu horiek eman ezean, Udalak ezin izango du bermatu prozeduran behar bezala parte hartuko duenik.

Nolanahi ere, interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu alkatea@elorrio.eus



Elorrioko udala

helbidera idatziz bidalitako eskaera baten bidez. Interesduna Udaleko Datuak Babesteko Ordezkariarekin (DPO) harremanetan jarri ahal izango da dpo@elorrio.eus helbide elektronikoan.

Era berean, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko eskubidea duzula.

15. KLAUSULA GEHIGARRIA

Oinarri espezifiko hauetan berariaz jasotzen ez den guztirako, Elorriko Udalaren Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileetan xedatutakoa beteko da.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeak eta horrekin bat datozen gainerako lege-xedapenek arautuko dute.

16. ARAUBIDE JURIDIKOA

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorrean (2010eko maiatzaren 10eko BAO, 86 zk.), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotakoa aplikatuko da.

Elorrión, 2026ko otsailaren 12an

Euskara eta Hezkuntza Batzordeko Teknikaria

Jon Landaluze Garai